



Kaixo!

Legazpiko udalak **“Legazpiko festak, musika sexistarik gabe”** izeneko tailerra antolatu du. Tailerra apirilak 6, arratsaldeko 17.00etatik 19.00etara izango da, udaletxeko Batzar aretoan. Lahia Nahia elkarteak gidatuko du aipatutako tailerra.

Tailerrean parte hartzeko interesa baduzu, **eman ezazu izena asteazkenara arte, apirilak 5**, Kultur etxean, telefono honetara deituz: 943 73 72 02.

Ekimen hau eraso sexistak eta sexualak saihesteko eta sensibilizatzeko ekintzen artean sartzen da, eta horiek **Beldur Barik Gunea** izeneko programaren baitan daude. Beldur Barik Gunea programaren helburua emakumeentzako jaietako eta aisialdiko espazio seguru eta askeak eraikitzea da.

Bestaldetik, asteartean eskainitako aurkezpena bidaltzen dizuegu; Eraso Sexistak eta Sexualak balira, martxan jarri beharreko **Eskuhartze-Protokoloan** arreta berezia jartzeko deia eginez.

Jai Eragileen taldean parte hartu nahi baduzue, izena eman dezakezue **apirilak 10era arte**, Kultur etxean. Telefonoa: 943 73 72 02. Ondoren, parte hartzeko interesa agertzen dutenekin bilera bat egingo genuke.

Zuen berrien zain, ongi izan!

Legazpin, 2017ko martxoaren 31n.
Herritartasun atala
Berdintasuna, Jaiak eta Gazteria zerbitzuak

